



## ZIRKULARRA, 2004KO MARTXOAREN 30EKOA, LANGILERIAREN KUDEAKETARAKO ZUZENDARIARENA, 2003KO EKITALDIARI DAGOKION GIZARTE FONDOAREN BANAKETARI BURUZKOA

---

Indarrean dagoen Euskal Autonomia Erkidegoko Unibertsitatez kanpoko irakasle funtzionarioen lan-baldintzak arautzen dituen hitzarmena onartzen duen urriaren 1ko 228/2002 Dekretuaren 66. artikuluan ezarritakoaren arabera eta hura kudeatzen duen Batzorde Parekidean presentzia duten sindikatuen onespenerekin, Gizarte Fondoaren laguntzak jasotzeko eskabideak aurkezteko deia egiten da.

### I. KAPITULUA. OINARRI-ARAU OROKORRAK

#### 1. artikulua. Laguntzen helburu eta edukia.

Zirkular honek duen helburua da Gizarte Fondoaren dirulaguntzen hartzaileei dagokienez aipatutako dirulaguntzen edukia, kudeaketa era, erabakia eta ordainketa arautzea, ondoren adierazten diren motetan:

- a) Minusbaliatuak zaintzeko laguntza
- b) Nazioarteko umeordetzengatik laguntza
- c) Laguntza bereziak

Mota hauek metagarriak dira.

Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zergaren Foru Arauen 15.1) artikuluari jarraiki, aipatutako laguntzak dirulaguntzak dira, lan pertsonaletik zeharki eratorriak direlako, eta horregatik, atxikipenari loturiko etekintzat hartu behar dira.

#### 2. artikulua. Laguntzen zenbatekoa.

1. Kitatzen den ekitaldirako zenbateko eskuragarria 60.101 eurotakoa da.
2. Laguntzak kalkulatzeko, kontuan hartu behar da behar bezala justifikatutako gastuek eskatzaileari dakarkioten kalte ekonomiko pertsonala. Eskaerak kontuan hartzen hasteari dagokionez, kalte ekonomikoaren zenbatekoa kitatzen den ekitaldiari dagokion onuradunaren urteko lansari gordinaren %7 hartuko dugu muga.



3. Beraz, laguntza guztira izango da behar bezala justifikatutako gastu edo esleituriko zenbatekoaren eta kalte ekonomikoaren arteko aldea, diru-kantitate erabilgarriari doikuntza egin ondoren dagokion ehunekoarekin.
4. Gutxienezko zenbatekoa 50 eurotan ezartzen da.

### **3. artikulua. Eskatzaileari dagokiona.**

1. Ondoren zehazten direnek 1. artikuluan adierazitako laguntzak jaso ditzakete: Euskal Autonomia Erkidegoko Unibertsitatez kanpoko irakasle funtzionarioen lan-baldintzak arautzen dituen hitzarmenpean dauden karrerako zein bitarteko irakasleak.
2. 2003 urte osoan lanean egon ez den langileen eskaerek, urte horretan betetako lanaldiaren heinean jasoko dute laguntza
3. Dena den, lagundu beharreko egoera hori eskatzailea lanean diharduenean eman beharko da.
4. Langileari eta honen ezkontide eta seme-alabei dagozkien eskaerak kontuan hartuko dira, ondorengo salbuespen hauekin seme-alabei dagokienez:
  - a. Lagundu beharreko egoera hori gertatu denean 25 urteak beteta dituztenean.
  - b. Beste familia-unitatekoak direnean.
  - c. Bai norberaren bai inoren kontura, kitatzen den ekitaldian lanbide arteko gutxienerako soldata adina lan errentak jasotzen dituztenean, urteroko kopuruan.

Horrelakoetan, eskabidearekin batera familia liburuaren fotokopia aurkeztuko da.

### **5. artikulua. Eskabideak aurkezteko epea eta lekua.**

Eskabideak aurkeztuko dira Zirkular honek duen datatik hilabeteko epean eta Hezkuntza Lurralde Ordezkaritzetan aurkeztuko dira.

### **4. artikulua. Eskabideak eta dokumentazioa.**

1. Laguntza jaso dezaketen bi langilek onuradun berberak dituztenean, soilik bietako batek jasoko du laguntza.



2. Eskabideekin batera dagokion laguntza motako jatorrizko berariazko dokumentazioa aurkeztuko da. Zuzenketa edo ezabaketarik duen eskabideak ez du baliorik izango. Salbuespenez, jatorrizko dokumentazioa aurkezteko ezintasunik balego konpultsatutako fotokopiak onetsiko lirateke.
3. Espedienteak erabakitzeko behar diren datuak egiaztatu eta argitzeko, administrazioak datu horien edo eskatzaileen administratibo edo lan-egoerari buruzko dokumentazioa eska dezake.

## **6. artikulua. Kudeaketa modua.**

1. Zirkular honen publizitatea Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko web orrian eta ikastetxeetara intranet-en bidez bidaltzearekin egingo da.
2. Eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren, Lurralde Ordezkaritzek, alfabetoz ordenatuta, Langileriaren Kudeaketarako Zuzendaritzara bidaliko dituzte.
3. Eskabidearekiko erabakia horretarako sortua den Batzorde Paritarioaren ardura da. Hartutako erabakia Langileriaren Kudeaketarako Zuzendariak gauzatuko du emate eta ez emateko ebazpenen bidez.
4. Ordainketa nominaren bitartez egingo da.

## **7. artikulua. Bateragarritasunak.**

Laguntza hauek bateragarriak dira nomina aurrerakinekin, itzultzeko aurrerakinekin edo nominaren hileroko atxikipena dakarten herri administrazioak emandako beste laguntzekin.

## **8. artikulua. Bateriaezintasunak.**

1. Zirkular honetan jasotzen diren laguntza-motak bateraezinak dira arrazoi berdinez edozein erakunde publikok ematen duen antzeko laguntzarekin. Bakarrik txikiagok balira, hura agiriaren bidez adieraziz, diferentzia ordaintzea eska ahal daiteke.
2. Halaber bateraezinak dira antzeko xederengatik bestelako lan hitzarmen eta akordioetan ezarrita dauden dirulaguntzekin, hauen onuraduna beste familiakide bat bada. Hala ere, lehengo kasuan bezala, familiakide horrek hartutako laguntza eskatutakoa baino txikiagoa izango balitz aldea eska liteke.



## **9. artikulua. Eskabidean faltsukerian jarduteagatik.**

Datuak ez ezkutatzea, emandako dokumentuak egia egokitzea eta aurkeztu beharreko agiri guztiak ematea bete beharreko eskakizunak dira. Beraz aipatutakoren bat ez betetzeak dakar eskaturiko diru-laguntzari uko egitea edo, diru-laguntza ordurako emanda egongo balitz, indargabe uztea eta merezigabe harturiko zenbatekoak itzuli beharko lirateke; beti ere, kontuan harturik alde batetik, Kode Penaleko 390. artikulua eta ondorengoek ezarrita dituzten zigor-erantzukizunak, eta bestetik, ager litezkeen bestelako erantzukizun zibil eta administratiboak.



## II KAPITULUA. BERARIAZKO OINARRI-ARAUAK

### 10. artikulua. Minusbaliatuak zaintzeko laguntza.

1. Laguntza hau, gabezi eta akats fisiko, psikiko edo sentsoari dagozkien zaintza bereziak, tratamenduak eta birgaitzearen ondorioz eratorritako gastuei aurre egiteko da.

Era berean, ibilgailu motordun bat eta bizilekua minusbaliatuak erabil ahal ditzan egokitzeko gastuak ere badagozkio laguntza mota honi, gehienez 1.500 eta 3.000 eurotako zenbatekoak, hurrenez hurrez, direlarik.

2. Pazienteak pentsio ofizialik esleiturik edukiko balu edota minusbaliotasun ondorioz, nahiz bere gurasoek nola bere ezkontideak famili laguntzarik jasoko balute, laguntza honen %25a justifikatzen zailak diren gastuei aurre egiteko izango da eta gainontzeko %75a kendu beharko zaie gastu laguntzaileei.

3. Dokumentazioa:

- a) Minusbaliotasunaren arabera eman beharreko egiaztagiria erakunde eskudunak eginikoa da.
- b) Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak (G.S.I.N.ak) eginiko egiaztagiria adieraziz, esleiturik baldin badauka pentsio ala famili laguntzaren zenbatekoa, edo bestela ezezko egiaztagiria.
- c) Bizilekuaren lurraldeko erakunde eskudunak\* eginikoa, ekitaldian pazienteari laguntzeko emandako laguntzak nolakoak izan diren adierazi behar duen egiaztagiria, edo ezezkoa laguntza eman ez balitz.
- d) Gastu fakturak, birgaitzerako zentro edo erakundeak edota gabezi eta minusbaliotasun fisikoetan tratamendu eta birgaitzerako profesional berezituak eginikoa. Gainera, hala badagokio, garraio eta bidai gastuak. Fakturak bete behar dute 10.2.b) artikuluan ezarrita dagoena.

### 11. artikulua. Nazioarteko umeordetzak.

1. Pestazio hau oroharreko prezioan eginiko dirulaguntza da, behingoan ordaindu beharrekoa eta atzerrian haurren seme-alabaordetzak egiteko sortzen diren gastuen finantzaketa xedea duena. Zenbatekoa erabakitzeke Batzorde Paritarioak kontuan izango du laguntza honen onura zenbat eskaera jaso diren.



## 2. Dokumentazioa:

- a) Jaioterriko ebazpen judiziala umeordetza onartzeko dena.
- b) Umeordetza inskripzioa agertzen den familia liburuaren konpultsaturiko fotokopia.

## 12. artikulua. Laguntza bereziak

1. Bestalde, kontuan ere har daiteke izaera berdintsuko bestelako arazorik, hala nola, bereziki larriak eta presakoak izanda, laguntza jaso dezakeenentzat edota bere senideentzat kalte ekonomiko ikaragarria dakarten arazoak. Edonola ere, eta emandako dokumentazioaren arabera, azken erabakia Batzorde Paritarioaren ardura da. Dena den ez dira onartuko odontologiako gastuak, betaurrekoak/lenteak erosteko egindakoak eta ibilgailuak erostekoak.
2. Dokumentazioa. Dagokiona egindako eskaeraren arabera eta interesatuek zergatia hobeto balora dezaten.

Vitoria-Gasteizen, 2004ko martxoaren 30(e)an

Izpta.: Itziar GARAIZAR AGIRRE

**LANGILERIAREN KUDEAKETARAKO ZUZENDARIA**